

# LANAREN EKONOMIA IKASTAROA 1. gaiaren praktikak

OTAZUA GARMENDIA, GARIKOITZ

# 1. GAIAREN PRAKTIKAK: LAN ANALISIRAKO OINARRIZKO KONTZEPTUAK

## 1.1 praktika

### EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO ETXEKO EKOIZPENAREN KONTU SATELITEA

Aurrerago ageri den informazioa irakurri ondoren, erantzun honako galderari:

1. Zertarako balio du Etxeko Ekoizpenaren Kontu Sateliteak eta nork burutzen du?
2. Zein ekoizpen-mota neurtzen ditu kontu honek?
3. BPGd-aren zenbat hartzen du? Zergatik jaitsi da?
4. Biztanleriaren zein sektorek egiten diote ekarpen handiagoa etxeko ekoizpenari?


Etxeko Lanaren Kontu Satelitearen bosgarren edizioa egin du EUSTATEk; etxeek egindako ekoizpen-jardueren irudi osoa ematea du funtsezko helburutzat, eta horrelako jarduerak ekarritako balio ekonomikoa zenbatestea, neurri handi batean ez baitago jasota Barne Produktu Gordinaren (BPGd) estimazioetan. Ekoizpen-jarduera nagusiak hauek dira: ostatua ematea, zaintzea eta heziketa ematea, jaten ematea eta arroparekin lotutako zereginak.

Hemen agertzen denari buruzko informazio guztia Eustaten ere auki dezakezu:

[http://eu.eustat.eus/elementos/ele0013200/ti\\_Euskal\\_AEko\\_ordaindu\\_gabeko\\_etxeko\\_lana\\_BPG-aren\\_324\\_izango\\_zen\\_2013an/not0013261\\_e.html](http://eu.eustat.eus/elementos/ele0013200/ti_Euskal_AEko_ordaindu_gabeko_etxeko_lana_BPG-aren_324_izango_zen_2013an/not0013261_e.html)

Euskadiko Autonomia Erkidegoaren etxeko ekoizpena 21.342 milioi eurora igo zen 2013an, hau da, urte horretako Barne Produktu Gordinaren (BPGd) % 32,4, Eustaten datuen arabera.

Azken hogeituroteetako datuak aztertuta, ordaindu gabeko etxeko lanaren balioak BPGd-an duen parte-hartze ehunekoaren murrizketa nabarmentzen da, hain zuzen 1993ko %46,2tik 2013ko %32,4ra; halere, serieko ehuneko txikiena 2008an izan zen, eta berriro egin zuen gora aldiaren amaieran, 2008tik 2013ra bitartean. Beste behin ere, etxeko ekoizpenak zikloen aurkako izaera duela gelditzen da agerian; izan ere, gora egiten du krisialdian, merkatuko ekonomiatik ordaindu gabeko etxeko ekonomiara baliabideak igarotzen direlako, eta horren ondorioz, aurreko urteetan, hedapen-uneetan, merkatuan eskatutako ekoizpena etxera igarotzen da.




Eginkizunen arabera banaketak, 2013an, ez du 2008arekiko alde handirik. Zehazki eginkizun hauek dute 2013an proportzio handiena: jaten (% 43,3) eta ostatua (% 31,2) ematea; jarraian, zaintzea eta heziketa ematea (% 17,7) ageri dira, eta azkenik, arropa eta bestelakoak (% 7,9).

	1993	1998	2003	2008	2013
1.- Ordaindu gabeko etxeko lanak	11.741.137	13.392.118	15.637.783	20.001.264	21.342.098
2.- BPG merkatu-prezioan	25.389.485	36.550.072	50.381.950	69.648.307	65.906.376
3.-Etxeko produkzioa/BPG (%)	46,2	36,6	31,0	28,7	32,4

Iturria: Eustat. Etxeko lanaren kontu satelitea

**2. grafikoa. Ordaindu gabeko etxeko lanaren balioaren banaketa eginkizunen arabera. Euskal AE. 2013**



Iturria: Eustat. Etxeko lanaren kontu satelitea

Etxeko ekoizpenaren balioaren generoaren arabera banaketari dagokionez, gizonezkoen parte-hartzearen hazkundea nabarmendu beharra dago; portzentajezko bost puntu inguru hazi da azken bost urteetan, 2008ko % 28,6tik 2013ko % 33,3ra. Eginkizunen arabera, etxebizitza (% 37,6) eta jaten ematea (% 35,7) eginkizunetan dago gizonezkoen ekarpen handiena 2013an, eta horietatik oso gertu dago zaintzea eta heziketa ematea (% 31,2); gutxien, aldiz, arropa eta bestelakoak ematea (% 16,9) eginkizunetan parte hartzen dute.

**1. taula. Etxeko ekoizpenaren generoaren arabera banaketa. Euskal AE. (%)**

	2013		2008	
	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Ostatua ematea	37,6	62,4	31,3	68,7
Jaten ematea	35,7	64,3	34,8	65,2
Zaintzea eta heziketa ematea	31,2	68,8	27,3	72,7
Arropa eta bestelakoak ematea	16,9	77,1	14,6	85,4
<b>Etxeko produkzioa guztira</b>	<b>33,3</b>	<b>66,7</b>	<b>28,6</b>	<b>71,4</b>


Iturria: Eustat. Etxeko lanaren kontu satelitea

Ikuspegi luzeago batetik, azken 20 urteetako bilakaera aintzat hartuta, gizonezkoek etxeko lanean duten parte-hartzea ia 13 puntuko igoera izan badu ere, emakumeen ehunekoa horren bikoitza da oraindik 2013ko guztizkoaren arabera.

Era berean, etxeko lanaren generoen arabera banaketa antzekoa da hiru lurralde historikoetan, baina Araban gizonezkoen parte-hartzea portzentajezko bi puntu handiagoa da Euskal Autonomia Erkidegoko batezbestekoarekin alderatuta.

Bestelako ekonomiei dagokienez, denbora aintzat hartuta, Suitzarekin baino ezin da konparaziorik egin; etxeko lana, 2013an, BPGd-aren % 37a izan zen han, eta lan horren % 62a emakumeek egiten zuten. Aspaldikoagoak dira Frantzia eta Espainiaren 2010eko erreferentziak; etxeko lana BPGd-aren % 36 eta % 41 izan zen horietan, hurrenez hurren.

**3. grafikoa. Etxeko lanaren bilakaera generoaren arabera. Euskal AE**



Iturria: Eustat. Etxeko lanaren kontu satelitea

**1.2 praktika****LAN ESKAINTZA OSATZEA**

1. Eman ondorengo baieztapenaren aurkako eta aldeko argudioak: "Espainian langabeziako prestazioaren zenbatekoa murriztuko balitz, langabezia-tasa murriztea lortuko litzateke" (prestazioa aurretiko oinarrizko soldataren % 70ekoa da lehen 6 hilabeteetan zehar eta % 50ekoa gainerako 18 hilabeteetan zehar).
2. Azter itzazu erretiro-adina 65 urteetatik 67 urteetara igotzearen ondorioak.

**1.3 praktika****SOLDATEN BILAKAERA ETA ZIKLO EKONOMIKOA**

Elkarrizketa irakurri ondoren, laburbildu soldaten igoera batek izan ditzakeen ondorio onuragarriak.

**ELKARRIZKETA – EKONOMIA** 2018/02/08 08:15 H.

**Antón Costas: "Gizartea ez dabil aberatsen kontsumoarekin, baizik eta erdiko klasearen kontsumoarekin"**

**Antón Costas (Vigo, 1949) ekonomialari ospetsua gaur iritsi da Ourensera Marcos Valcárcel kultura-etxean (19:30etan) bere azken liburua aurkezteko, "El final del desconcierto. Un nuevo contrato social para que España funcione".**

Antón Costas (Vigo, 1949) ekonomialari ospetsua gaur iritsi da Ourensera Marcos Valcárcel kultura-etxean (19:30etan) bere azken liburua aurkezteko, "El final del desconcierto. Un nuevo contrato social para que España funcione". Ekitaldiak Ourenseko alkatea, Jesús Vázquez, eta Ourenseko Ekonomialarien Elkargoko presidentea, Guillermo Díez, izango ditu aurkezle. Bartzelonarra adopzioz, Costasek lan-egoera edo Kataluniako gatazka jorratuko ditu, besteak beste.

Beti azpimarratzen du krisiak jende asko utzi duela bide-bazterrean. Egoera aldatuko al da?

Espainiako ekonomia maniako depresiboa da, euforia eta enplegua sortzen duten hazkunde azkarreko faseak ditu, baina ondoren, beste ekonomiak batzuk baino bortitzago hondoratzen da eta enplegu gehiago suntsitzen du, ziklo bipolarra da. Arazo nagusia da, atzeraldiak luzeegiak direnean, langabezia handiarekin, eta susperraldia itzultzen denean, biztanleriaren zati bat bide-bazterrean geratzen dela, langabezian edo lan prekarioekin, egonkortasuna lortzeko gaitasunik gabe. 80. urteetako hamarkadan gertatu zen, % 10etik gorako langabezia iraunkorrarekin, eta baita 90. urteetako hamarkadan ere, eta orain berriz ere gertatuko dela dirudi. Hiru hamarkada igarota, psikiatrarengana jotzeko garaia da, gaizki egiten ari garena aztertzeraz.

Agintariek ez dute hori egiten?

Pobreziaren % 70 enpleguaren hondoratzearekin azaltzen da, ziklo ekonomiko bipolarrekin zerikusi handia du. Orain arte burutu dena baino politika makroekonomiko, fiskal eta monetario askoz ere hobe behar dugu. Hersturaren kudeaketa hain izan da kaltegarria, non arduragabekeria-arazoa den. Beste edozein lanbidetan, erantzuleak epaitegietan egongo ziren orain. Dirudienez, azalpenik eman behar ez duen lanbide bakarria politikarena da.

BPGd-ak hobera egin duela entzuten da, ekonomia hazten ari dela. Baina zer gertatzen da kaleko herritarrekin?

Gure gizartean dagoen nahasmenduak harreman handia du berria den gertaera batekin, II. Mundu Gerratik ikusi ez duguna. Ekonomiak gizarte-aurrerapenarekin zuen lotura hautsi du. Susperraldi ekonomiko oro enpleguaren hazkundearekin eta soldata onekin batera iristen zen eta, orain, ekonomia hazten ari dela eta langabezia murrizten ari dela ikusten ari gara, baina soldatek ez dute gora egiten, oso arazo larria da hori mendebaldeko ekonomia guztientzat.

Eta Espainiarentzat bereziki?

Hazkunde ekonomikoa gizarte-aurrerapen bihurtzeko zailtasun handienak dituen Europako herrialdea da eta horregatik diote txosten guztiek desparekotasuna gehien areagotu duen herrialdea garela. Arazo larria dugu, neurri handi batean soldaten ondorioz, baina baita zergak eta gizarte-gastuak aberatsenen alde birbanatzen direlako ere, eta ez behekoen alde. Bi osagai horien ondorioz, pobrezia, desparekotasuna, baztertzea eta diru-sarrerarik eza ikaragarriak dira.

Eta zein da enpresarien erantzukizun-maila?

Galdera da soldatak areagotzeko tarterik baden, eta bada. Laugarren urtez jarraian gaidikinak beste edozein herrialdeetan baino handiagoak izan dira. Zergatik areagotu behar dira soldatak? Hiru arrazoirengatik; etxebizitzaren %70aren diru-iturri nagusia direlako, bizitza duina eramateko gakoa. Halaber, oso garrantzitsuak dira ekonomia maniako depresibo bat ez izateko, izan ere ekonomia ez dabil aberatsen kontsumoarekin, baizik eta errenta ertainen eta langileen kontsumoarekin. Eta hirugarrenik, soldatek oso lotura estua dute enpresen produktibitatearekin; produktibitate hori ez da areagotuko soldatak baxuak badira. Gaizki ordaindutako langileak produktiboagoak balira, esklabutza zoragarria zela ohartu garela esan nahiko luke.

## 1. GAIAREN PRAKTIKEN ERANTZUNAK

### 1.1 PRAKTIKA

1. Zertarako balio du Etxeko Ekoizpenaren Kontu Sateliteak eta nork burutzen du?

Funtsezko helburua etxeek egindako ekoizpen-jardueren irudi osoa ematea da, eta horrelako jarduerak ekarritako balio ekonomikoa zenbatestea, neurri handi batean ez baitago jasota Barne Produktu Gordinaren (BPGd) estimazioetan.

2. Zein ekoizpen-mota neurtzen ditu kontu honek?

Etxeetako ekoizpen-jarduera nagusiak hauek dira: ostatua ematea, zaintzea eta heziketa ematea, jaten ematea eta arroparekin lotutako zereginak.

3. BPGd-aren zenbat hartzen du? Zergatik jaitsi da?

Azken neurketan (2013), BPGd-aren % 32,4 hartu zuen. Joera beheranzkoa da etxeko jarduerak eta zaintza-jarduerak kanpora atera direlako pixkanaka. Etxeko lanaren zati bat etxe-zerbitzariak egiten dute, eta langile horiek BPGd-ak barne hartzen duen soldata bat jasotzen dute. Gauza bera gertatzen da zaintzekin. Ordainsaria jasotzen duten pertsonak burutzen badituzte edo adingabekoen haurtzaindegi-zerbitzuak edo adinekoen egoitzak erabiltzen badira, horiek BPGd-aren barne daude.

Joera beheranzkoa izan arren, 2008. eta 2013. urte artean, krisiaren urteetan zehar, etxeko ekoizpenak BPGd-an hartzen duen ehunekoareagotu egin zen. Horrek argi uzten du etxeko ekoizpenak duen zikloen aurkako izaera, krisi garaian areagotu egiten dena, baliabideak merkatuko ekonomiatik ordainik gabeko etxeko ekonomiara igarotzen baitira. Hori gertatzen da hainbat pertsona lanik gabe geratzen direlako eta etxeko lanak eta zaintzak beren gain hartzen dituztelako.

4. Biztanleriaren zein sektorek egiten diote ekarpen handiagoa etxeko ekoizpenari?

Emakumeek, gutxi gorabehera, etxeko ekoizpenaren bi heren burutzen dituzte.

### 1.2 PRAKTIKA

1. Eman ondorengo baieztapenaren aurkako eta aldeko argudioak: "Espainian langabeziako prestazioaren zenbatekoa murriztuko balitz, langabezia-tasa murriztea lortuko litzateke" (prestazioa aurretiko oinarritzko soldataren % 70ekoa da lehen 6 hilabeteetan zehar eta % 50ekoa gainerako 18 hilabeteetan zehar).

Alde batetik, langabeziako prestazio bat izateak enplegu-bilaketari pizgarriak kentzea gerta liteke, pertsona batek lan egiteko eskatzen duen gutxieneko soldata, "erreserbako soldata", areagotzen baitu. Hori gerta liteke lehen 6 hilabeteetan

zehar, prestazioa aurreko soldataren % 70ekoa denean. Pertsona bati soldata-maila baxua duen enplegu bat eskaintzen bazaio, baliteke pertsona horrek beste zer edo zer hobea agertu arte itxaroteko erabakia hartzea.

Bigarren aldiari zehar, non prestazioa aurreko soldataren erdia den, zaila dirudi prestazio horrek lan-bilaketari pizgarriak kentzea. Hala ere, soldata-maila nabarmen beheratu den ekonomia baten testuinguruan, baliteke ere hori gertatzea.

Espainiako ekonomiaren kasuan, ez dirudi arrazoizkoa pentsatzea langabeziako prestazioa murrizteak langabezia murriztuko duenik. Lehenik, prestazioaren diseinua bera eta zazpigarren hilabetetik aurrera duen zenbateko mugatua direla eta. Bigarrenik, langabeen zati oso handi batek ez duelako prestaziorik jasotzen. Hirugarrenik, langabeziaren beste arrazoi bat delako gure ekoizpen-egiturak ez dituela sortzen lan egiteko prest dagoen biztanleria guztiari lana emateko adina lanpostu.

2. Azter itzazu erretiro-adina 65 urteetatik 67 urteetara igotzearen ondorioak.

Erretiro-adina areagotzeak lanpostuen eskuragarritasuna murriztuko du lan-merkatu sartzeko diren gazteentzat. Hori, gazteen arteko langabezia-tasa handia ikusita, arazo larria da.

Beste arazo bat da adin gehien duen biztanleriak lan-merkatuan jarraituko duela eta horrek ondorio negatiboak izan litzakeela produktibitatean eta ekoizpen-prozesuan berrikuntzak sartzeko orduan.

Alderdi positibo gisa, Gizarte Segurantzaren kontuei dagokienez, pentsioen gastua murriztuko litzateke.

### 1.3 PRAKTIKA

Hiru arrazoiengatik:

- Arrazoi soziala: etxebizitzaren % 70aren diru-iturri nagusia dira, bizitza duina eramateko gakoa.

Arrazoi ekonomikoak:

- Lehenik, erdiko klasearen soldatak baitira eskaria eta enplegua mantentzen dituztenak. Soldatak horrenbeste jaitsi izan ez balira, ekonomia ez litzateke horren baxu erori izango eta langabezia ez litzateke horrenbeste hazi izango.
- Bigarrenik, soldatak areagotzen badira, enpresen produktibitatea areagotuko da.

